

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

DBH
4. maila

Proiektua

ibai bi
Proiektua



Egileak

Marta Trutxuelo García
Santiago Rodríguez Rivarola

Koordinazioa

Nerea Atxega Zubikarai

ibaizabal



Aurkibidea

1. Sarrera	4
1.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako proiektu kurrikularrari begirada	4
1.2. Gizarte Zientziak ikasgaiko proiektu kurrikularrari begirada	4
1.3. Oinarrizko gaitasunak eskuratzeko irakasgai honek egindako ekarpena	7
2. Material kurrikularraren egitura	11
2.1. Ikaslearen materiala	11
2.2. Irakaslearen materiala	11
3. Metodologia	13
4. Helburuak	14
4.1. Etapako helburuak	14
4.2. Ikasgai guztirako helburuak	14
4.3. Geografia eta Historia ikasgaiko helburuak	15
5. Gizarte Zientzietako laugarren mailako helburuak:	
Geografia eta Historia	16
5.1. Edukien segida	16
5.2. Edukien gai multzoak	16
5.3. Unitateetako edukiak	16
6. Zehar lerroak	24
7. Aniztasunaren trataera	26
7.1. Curriculuma	26
7.2. Zenbait metodologia	27
7.3. Talde malguak	27
7.4. Curriculum egokitzapenak	28
8. Ebaluazio irizpideak	29
8.1. Arloko ebaluazio irizpide komunak	29
8.2. Historiako ebaluazio irizpideak etapa osorako	29
8.3. Historia ikasgaiko ebaluazio irizpideak	29

1. SARRERA

1.1. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO PROIEKTU KURRIKULARRARI BEGIRADA

Proiektu kurrikularra izaera tekniko profesionala duen dokumentua da, eta arlo bat lantzeko eta planifikatzeko erabiltzen da; horrela, irakasle taldeek —ezinbesteko elkarlan etengabearen bitartez— derrigorrezko curriculuma, ikastetxeko Hezkuntza proiektua eta bertako ikasleen ezaugarriak oinarritzat harturik, proiektuaren nondik norakoak erabakiko dituzte, alegia, zer, noiz eta nola irakatsi eta ebaluatu.

Halaber, proiektu kurrikularrak irekia eta malgua izan behar du; aukera eman behar die arlo bakoitzeko irakasleei ikastetxearen berariazko ezaugarrietara eta ikasleen behar pertsonaletara eta zehatzetara egokituko den heziketa ereduak garatzeko.

“Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren aurretiazko ezarpenak iraundako urteetan eta pixkanakako ezarpen orokortuak iraundako lau urteetan, esperientziak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza erreformatzeko beharra agerian utzi du; gutxieneko irakaskuntzen diseinua jaso behar du, eta diseinu hori oinarritzat izango da nazio osoan, autonomia erkidegoetan barne”.

1.2. GIZARTE ZIENTZIAK IKASGAIKO PROIEKTU KURRIKULARRARI BEGIRADA

Hezkuntzaren funtzio sozializatzailea, hein handi batean, honako hauetan datza: batetik, ikasleei dagokien gizartearen berri ematean, bai iragan historikoaren eta gaur egungo antolakuntzari eta funtzionamenduari dagokiona, bai bizi diren lurraldeari dagokiona, baita hango arazoei dagokiena ere; eta, bestetik, herritar gisa beren betebeharre aurre egiten eta dituzten eskubideez balia ditzaten

prestakuntza ematean, partaidetza, tolerantzia eta elkartasunezko jarrerak bultzatuta.

Horrenbestez, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiaren irakaskuntzaren helburua zera da: ikasleek dagokien munduaren errealitatea hobeto ezagutzeko beharrezkoak diren ezaguerak, trebetasunak eta jarrerak ikastea, alderdi fisikoak, sozialak zein kulturalak barnean hartzen direla, baita iraganeko eta gaur egungo esperientzia kolektiboak ere, eta gizartean dagoen bizimoduaren espazioa ere kontuan hartuta; eta, horrezaz gain, Euskal Herriko, Espainiako eta Europako nortasun historikoa eta kulturala osatzen duten berariazko ezaugarrien berri ematea. Hala, irakasgai honek elementu esanguratsuak ematen ditu inguruneke alderdi fisikoak ondo ezagutzen dituzten herritarrak trebatzeko; herritar horiek arduratsuak eta solidarioak izan beharko dute, eta gaur egungo gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala aintzat hartu beharko dituzte, bereziki gaur egungo euskal gizartekoa; bestalde, naturarekiko, beren buruarekiko eta besteekiko harreman berrien bila dabilzan herritarrak prestatzeko elementuak ere ematen ditu.

Beste alde batetik, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakaskairako curriculum proposamen honek lagungarri izan nahi du ikaskuntzaren arloetako oinarritzko gaitasunak modu eraginkorrez gara daitezen. Zehatzago esanda, helburua ikasleei beren burua hobeto ulertzen laguntzea da, pertsona bakarrak balira bezala, baina gizartean beste batzuekin batera bizi dira, eta haiekin taldetan antolatu behar dute, helburu edo maila guztietan (familia, eskola, bizilagunak, udalerrria, nazioa, etab.). Talde horiek hobeto ezagutzen laguntzea da helburua, eta, halaber, talde horietan modu aktiboan parte hartzen laguntzea. Talde horiek interaktiboak dira; denboraren poderioz berrantolatu dira eta hainbat jatorritako bizikidetzak gatazkak eta

¹ Sarrera 3473/2000ko abenduaren 29ko Errege Dekretua da, eta aldatu egiten da 1007/1991ko ekainaren 14ko Errege Dekretuaren ordez. Horren arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion gutxiengo irakaskuntzak ezartzen dira.

tentsioak izan dituzte eta izaten ari dira. Nahitaezkoa da gatazka horiei bake eta demokrazia prozesuen bidez aurre egitea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiak ezaguera, trebetasun eta jarrera horietan sakontzea du helburu, aurreko etapan ikasleek ikasitakoa abiapuntu hartuta. Izan ere, Lehen Hezkuntzan, natura, gizarte eta kultura ingurunearen arloko ezaguerak barneratzeko, modu globalean eta ikasleen esperientzien bidez hurbiltzen ziren errealitatera, alderdi indibidualak, subjektiboak eta norberaren bizipenak azpimarratzen zirela. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gizartearen ezagueran sakondu egiten da, gizartearen errealitaterako hurbilketa analitikoagoa proposatzen baitu: kontzeptuak dibertsifikatu egiten dira; ezaguera zientifikoekin zerikusia duten prozedurak konplexuagoak dira; espazio-denborak hainbat eskalatan aztertzen dira, eta jarrerak eta balioak sendotzen hasten dira. Horri esker, irakasgai honen diziplina ikuspegia sendotu egiten da, eta Geografia eta Historia hartzen dira oinarritzko erreferentziatzat. Bi diziplina horiek gizarte arloaren ardatzak dira, gizakiaren eta gizartearen errealitatea ikuspegi globala eta integratzailea kontuan hartuta hartzen baitute aintzat; eta, gainera, gertaera sozialak egituratzeko ahalmen handiagoa ematen dute, eta beste diziplina batzuetako elementu komunak eta jakintzak ematen dituzte, berez diziplina anitzekoak baitira. Historiak ezaguerak eta metodoak eman behar dizkie ikasleei, gizartearen bilakaera denboraren joanean nolako izan den ulertzen; eta Geografiak, berriz, espazioaren dimentsioa hartu behar du kontuan. Dena dela, gaur egungo gizakiaren eta gizartearen errealitatea ulertzeko, nahitaezkoa da Gizarte Zientziaren arloa osatzen duten diziplinak ere kontuan hartzea, eta horiek errealitate hori aztertzeko hainbat ikuspegi ematen dituzte. Esate baterako, Ekonomia, Soziologia, Artearen Historia eta Ekologia irakasgaiak dira, eta errealitate hori ulertzeko osagarriak dira. Hortaz, batetik, irakasgaiak gizartearen espazio dimentsioari eta lurralde osaerari buruzko oinarritzko ideiak ematen ditu, tokikoak zein mundukoak; horrezaz gain, gizarteek ingurune fisikoarekin duten elkarrekintza printzipioen berri ematen die ikasleei, eta, horri esker, emakumezkoek eta gizonezkoek espazioan

nola jokatzen duten eta ingurunearen potentzialtasunak eta mugak balioesteko gai izango dira. Lagungarria da, halaber, ikasleek honako hauen berri sakonago izan dezaten: gizartearen espazio antolakuntza, haien demografia, ekonomia edo giza dimentsioak, gizakiaren esku hartzeko moduak eta horiek eragin ditzaketen inpaktuak. Bestalde, gizarte gertaerak eta fenomenoak dagokien testuinguruan ulertzeak eta gizartearen izandako aldaketa historikoen prozesuak aztertzeak zentzua dute gaur egungo gizartearen ezaugarri eta arazo nagusiak balioesteko, ulertzeko eta epaitzeko. Ikuspegi hori kontuan hartuta, komeni da ikasleei behar adinako ezaguera globala ematea, denboraren joanean gizakiak gaur egungo errealitatea nola eratu duen interpretatzeko, eta denbora historikoa ulertzeko esparru orokorra izan dezaten. Irakasgai honek ekarpen garrantzitsuak egin diezazkioke hezkuntza gaitasunetako zenbait arlori; batik bat, esate baterako, honako gaitasun hauekin zerikusia dutenei: gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna, zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna, hizkuntza komunikaziorako gaitasuna, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna, giza eta arte kulturarako gaitasuna eta ikasten ikasteko gaitasuna. Ahaztu gabe matematikarako gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunarekin zerikusia duen gaitasuna. Eduki komunak izeneko hasierako multzoan geografiako eta historiako oinarritzko alderdien irakaskuntza erantsi da maila guztietan; prozedurak orokorrak dira, edo, hala dagokionean, jarrerei buruzkoak. Curriculumean hasierako multzoa eranstearen helburua eduki horiek azpimarratzea da, eta gainerako guztiak esparru horren barruan garatu beharrekotzat hartzen dira. Bestalde, denboraren joanean gizarteak nolakoak izan diren ikasteko, kronologia-irizpidea hartu da kontuan etapa guztian. Lehen mailan, inguruneen edo naturaren esparruak lantzen dira, elementuen arteko elkarrekintzaren ingurukoak zein lurraldea egituratzean giza taldeekin izandako harremanen ingurukoak; halaber, munduaren eremuari espazio erreferentzia egiten zaio, eta, bereziki azpimarratu dira euskal, espainiar eta europar eremuak. Biodibertsitatea

zaintzen laguntzeko, biodibertsitateari buruzko balioespena eta harekiko kontzientzia izatea eduki horiekin guztiekin zerikusia duten jarrerak dira, eta 2. gai multzoan lantzen dira, Lurra eta ingurune naturalak.

Maila horretan, gizarte historikoen bilakaera lantzen da, hastapenetatik Erdi Arora arte. Esparru horren barruan, gizartearen bilakaera ahalik eta nabarmenen erakusten duten alderdiak azpimarratzen dira, baita, denboraren ikuspegia abiapuntutzat hartuta, gaur egungo gizarteak nola eratzten diren ikusarazten duten alderdi esanguratsuenak ere. Mundua eremutzat hartuta, eta, bereziki, Europa, gure herrialdeko Historiaren ezaugarriak erantsi dira. 3. gai multzoak honako eduki hauek biltzen ditu: historiaurreko gizarteak, lehendabiziko zibilizazioak eta Antzinaroa. Bigarren mailan, honako hauek lantzen dira: biztanleria, demografiaren gorabeherak eta joerak eta horien ondorioak; gaur egungo gizartearen ezaugarriak, bereziki euskal, espainiar eta europar gizarteetakoak, eta horien egituren eta aniztasunaren berri ematen da; horrezaz gain, hirietako bizimoduak eta hiri espazioen ezaugarriak ere lantzen dira (2. gai multzoa: Biztanleria eta gizartea). Horrekin batera, bilakaera historikoa aztertzen jarraitzen da, Erdi Aroko gizarteekin hasi eta Estatu modernoa eratu arte. 3. gai multzoan, industriaurreko gizarteak izenekoan, garrantzi handia ematen zaie garai hartako Iberiar penintsulari, Erdi Aroko penintsulako lurraldearen aniztasunari, Monarkia Hispaniarrari eta Amerikako kolonizazioari, baita historia epe horietako Euskal Herriaren egoerari ere.

Hirugarren eta laugarren mailan, espezializazioa handiago da, eta gaur egungo munduaren azterketa da elementu komuna; hainbat ikuspegi osagarritatik lantzen da. Horrenbestez, hirugarren mailan, ekonomia jarduerak eta horiek eragiten dituzten espazioak eta paisaiak abiapuntutzat hartuta, antolaketa politikoa eta eremu geopolitiko eta ekonomiko handien geografia espazioa aztertzen da, baita gaur egungo mundu interdependente honen aldaketak eta arazoak ere; giza garapenean dauden desberdintasunak azpimarratzen dira bereziki. 2., 3., 4. eta 5. gai multzoek biltzen dituzte eduki horiek. Hau da, ekonomia jarduera eta geografia espazioa; ekonomia jarduerak Euskal Herrian eta horien

eragina ingurumenean; antolaketa politikoa eta geografia espazioa; eta gaur egungo munduaren aldaketak eta desorekak, hurrenez hurren.

Laugarren mailan, gaur egungo gizartearen bilakaera eta ezaugarriak lantzen dira. Gaur egungo gizartearen oinarri historikoen azterketak honako hauek biltzen ditu: XVIII. mendeaz geroztik XX. mendearen erdira arte izandako aldaketa ekonomikoak, politikoak eta sozialak, gaur egungo munduaren egitura politikoa eta ekonomikoa, integrazio prozesuak, aldaketa sozialak, artearen joera berriak, botere zentroak eta tentsioguneak. Esparru horretan, bereziki azpimarratzen da Espainian estatu demokratikoa nola eratu zen, Euskal Herrian nola gauzatu zen, eta Europako Batasunean duen partaidetza. Eduki horiek 2. gai multzoari —Egungo gizartearen oinarri historikoak—, 3. gai multzoari —Mundua gaur egun— eta 4. gai multzoari —Arte hizkuntzak— dagozkie.

Irakasgai honen helburuak eta edukiak hautatzean, etapa honetako herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza eta portaera etikorako eta herritarrerako hezkuntza irakasgaiak hartu dira kontuan, gizartearekin zerikusia duena osatzen baitute. Lotura duten alderdiak aukeratzekoan, kontuan hartu da irakasgaiarekin lotutako ikuspegi espezifikoa izatea edota ikuspegi osagarria izatea. Bestalde, irakasgaia lantzeko, etapa honen izaera bikoitza ere kontuan hartu da: azkena eta propedeutikoa.

Ikasleen adimenaren garapena dela-eta —pentsaera konkretutik formalera— bigarren hezkuntzan irakasgai hau irakastea eta ikastea errazagoa bada ere, diziplina konplexuak dira, eta ikasleek zailtasunak izaten dituzte espazioaren eta denboraren nozioak ulertzeko, giza eta gizarte gertaerak azaltzean sortzen diren arrazoi ugari eta intentziozkoak ulertzeko edo hainbeste informazio jasotzeko. Horregatik, beraz, nahitaezkoa da maila guztietan lan jarraitua egitea, etapa guztian pixkanaka-pixkanaka nozio horiek guztiak barneratzeko. Irakasgaia ikasgelan lantzerakoan, halaber, ikasleen aniztasunera egokitu behar da, curriculum materialak erabilita, indartzeko edo osatzeko lanak eginda, beste bitarteko batzuk erabilita (idatziak, ikus-entzunezkoak, grafikoak...), ikasleen motibazioa kontuan hartuta, azalpen eta ikerketa estrategiak txandakatuta,

pedagogia teknikak erabilia (esaterako, taldekako lanak).

Informazioa modu egokian erabiltzearekin zerikusia duten teknikak eman behar zaizkie ezagutzera, behaketaren edo dokumentazioaren bitartez; informazioa nola erabili, antolatu, grafikoki nola eman edo nola hedatu; halaber, diziplina bakoitzaren berezko prozedurak eta teknikak barneratzeko lagungarriak diren lanak egin behar dira. Izan ere, horrekin guztiarekin lortu behar da ikasleek jasotzen dituzten ezaguerak itxiak izan ez daitezen, eta irakasgai hau abiapuntu dela gaitasuna izan dezaten etorkizunean pixkanaka eta modu autonomoan beren kabuz ikasteko.

Ez dugu ahaztu behar, halaber, gertuen duten beren errealitatea ere ezagutu behar dutela ikasleek, eta errealitate hori oinarri izango dutela urrutiago dauden errealitatea ulertzeko, urrutiko errealitate horren partaide aktibo eta kide ere baitira. Alde horretatik, European, aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari dira; bateratze prozesua garrantzi handiko proiektua da, eta etorkizun zabala du, eta, hein handi batean, gaur egun ikasgeletan ditugun ikasleen belaunaldiak zeresan ikaragarria izango du proiektu horretan. Horrenbestez, berebiziko garrantzia du ikasleak bateratze prozesuaren ezaugarrien jakitun izatea: jatorria, oinarri ideologikoak, erakundeak, funtzionamendua, etab., baita pixkanaka eratzen ari den antolaketa politikoaren eta sozialaren abantailak eta desabantailak zein izan daitezkeen ere.

1.3. OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiak, bere izaera integratzaileari esker, oinarrizko gaitasunez jabetzen laguntzen du.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunak zerikusi zuzena du irakasgai honekin. Esan daiteke curriculumak oso-osorik laguntzen duela gaitasun horretaz jabetzen; izan ere, errealitate sozial, gaur egungo eta historikoa ulertzea da ikaskuntzaren helburua. Baina ikasleek hori benetan lortuko dute, baldin eta gizartearen bilakaerari eta antolaketari, eta haien lorpenei eta arazoei buruz ikasitakoak gizartean egoki moldatzeko

balio badie. Jakina, gaur egungo gizartearen ezaugarriak ulertzen, aniztasuna ulertzen eta gure gizartearen elementu eta interes komunak ulertzen laguntzen dute, eta, ondorioz, elkarbizitza errazten duten sentimendu komunak sortzen ere laguntzen dute.

Horrenbestez, honako hau da irakasgai honetan egin beharreko eginkizun garrantzitsua: ikasleei euskal gizarte askotarikoan integratzen laguntzea; integratze prozesua kritikoa eta eraikitzailea izango da, iragan luzea eta konplexua kontuan hartuta aurreko bezain konplexua den orainaldian gauzatu baita. Gizartean, Mendebaldeko beste edozein gizartetan bezala, badaude tentsioak eta arazoak, baina, horiez gain, biztanleen artean, badaude nortasun eta kidesun sentimendu ugari. Errealitate hori ohikoa da gaur egungo European, garai bateko estatu nazioek eragindako administrazioaren banaketa ez baitator beti bat biztanleen berezko hizkuntza, kultura edo nortasun kolektiboen mugekin. Testuinguru horretan, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiak lagungarri izan behar du arazoei modu baketsuan eta demokratikoki aurre egingo dieten herritarrak prestatzeko, betiere nor bere nortasunari eusten diola eta gainerakoena errespetatzen duela.

Trebetasun sozialak barneratzen ere laguntzen du irakasgaiak. Alde batetik, iraganeko edo gaur egungo giza jarduerak ulertzeko, ikasleek gai izan behar dute jarduera horiek gertaera garaia kontuan hartuta ikusteko, eta, hala, gainera, beste baten lekuan, lepoan, jartzeko gaitasuna izango dute, enpatia, alegia. Bestalde, trebetasun sozialak izango dituzte baldin eta arazoei aurre egiteko elkarriketa eta balioespena nahitaezko bideak direla ulertzen badute, edo beren iritziekin bat ez datozen bestelako iritzia dituzten pertsonak errespetatzen badituzte; gainera, elkarlana edo eztabaidak egitea proposatuta, balio horiek aplikatzea aurreikusten da, lan mota horietan nor bere ideiak adieraz baititzake eta besteenak entzuten eta errespetatzen baitira. Hainbat errealitate sozial, gaur egungoak edo historikoak, ezagutzeak edo beste kulturek egindako ekarpenei balioa emateak trebetasun sozialak garatzen laguntzen du, nahiz eta zeharka lagundu. Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiak hori guztia posible izan dadin beharrezkoak diren jarrerak sortzeko ere

baliagarria da. Berezkoa du zientzia bereziaren izaera, ez da gai ziurtasun erabatekoak sortzeko, baina, era berean, interpretazio hobeak eta zehatzagoak bilatzea eskatzen du; horrek, halaber, funtsezko bi jarrera lantzen laguntzen du bizikidetzarako eta arazoei aurre egiteko: erlatibismoa kontuan hartzea eta ñabardurak zehaztea eta horiek lantzea. Gizarte Zientziak ekarpen garrantzitsuak ere egin ditzakete, besteekiko harremanak kontuan hartuta pertsona bakoitzak bere burua bakar eta errepikaezin eraiki dezan. Gizabanako bakoitzak besteekin izandako harremanen bidez eratzen ditu bere nortasuna, izaera eta portaera; batetik, hainbat talderen partaide da, eta horien eraginak eta horien kultura erreferentzia espezifikokoak ditu abiapuntu; eta, bestetik, kulturen artean gero eta ugariagoak diren elkarreraginak ere ditu abiapuntu, bai lurralde bakoitzean izaten direnak —gero eta ugariagoak eta konplexuagoak—, bai gero eta globalagoa eta interaktiboagoa den gizarte batetik eratorritako fluxu anitzek osatzen dituztenak; gizarte horretan, funtzio garrantzitsua dute komunikabideak. Kultura zientifikoaren, teknologikoaren eta osasunaren kulturaren gaitasuna barneratzeko ere ekarpena garrantzitsua da. Gaitasun horrek, besteak beste, honako alderdi hauek biltzen ditu: giza jardueraren espazio fisikoaren pertzepzioa eta ezagutza, eremu handiena zein hurbileko eremuarena, baita bi eremu moten artean sortzen diren elkarrekintzak ere. Giza jardueraren espazioaren pertzepzio zuzena zein zeharkakoa da Geografiaren zereginaren ardatz nagusietako bat: gertaera sozialen eta ikaslearen bizitzaren beraren espazioa ulertaraztea; hau da, espazioaren dimentsioa ulertaraztea. Gaitasun hori landuko da, eduki geografikoak ikasteak dimentsio horretan eragina duela bermatzen bada; horretarako, berebiziko garrantzia dute espazioak eta paisaiak —benetakoak zein irudien bidez adierazitakoak— orientatzeko, kokatzeko, erreparatzeko eta interpretatzeko prozesuek. Gizakiaren eta ingurunearen arteko elkarrekintza eta horrek eragiten duen lurralde antolakuntzaren berri izatea ere ekarpen garrantzitsua da. Irakasgaiak berak aukera ugari ematen ditu gizakiak espazioa eta haren baliabideak nola erabiltzen dituen aztertzeko; eragiten dituen kalteak aztertzeko bakarrik ez, baita bi horiek (espazioa eta baliabideak) modu arduratsuan

erabilita ingurumena babestea eta zaintzea ziurtatzen dituzten ekintzak aztertzeko ere.

Giza eta arte kulturarako gaitasunari ere ekarpenak egiten dizkio; zerikusia du, batez ere, artearen adierazpenak ezagutaraztearekin eta haiek balioestearekin. Ekarpene hori gauzatzeko, batetik, arte lan garrantzitsuak aukeratu behar dira — estiloen edo artisten ezaugarriengatik esanguratsuak direlako, edo kultura ondarea osatzen dutelako—, eta, bestetik, funtsezko osagai teknikoak erreparatzeko eta horiek ulertzeko baliabideak eman behar zaizkie ikasleei, gero artelanak aztertu ahal izan ditzaten. Planteamendu hori oinarritzat hartuta, artelanei merezi duten balioa ematen irakasten da; pertzepziorako eta sentsibilizaziorako trebetasunak eskuratzen dira; artelanek gu hunkitzeko gaitasuna sortzen da, eta, gainera, kultura ondarea balioesten, errespetatzen eta hura zaintzeko interesa sortzen laguntzen du.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunari ere egiten dio ekarpenik; fenomeno sozialak eta historikoak ulertzeko informazioa aurkitzearekin eta hura ulertzearekin zerikusia duten trebetasunekin lotuta dago ekarpen hori; irakasgaia ikasteko nahitaezko elementua da informazioa, neurri handi batean. Bereziki, errealitateari zuzenean eta zeharka erreparatuzetik sortzen den informazioa bilatzen, lortzen eta tratatzen laguntzen du, baita informazioaren iturria idatzia (batez ere, testu motak eta informazio iturriak irakurtzeko gaitasuna), grafikoa eta ikus-entzunezkoa denean ere, eta erabiltzen den euskarria bai papera bai informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez lortutakoa izan daiteke. Honako hauek dira gaitasun hori eskuratzeko dakartzan funtsezko ekarpenetako batzuk: objektibotasunaren eta egokitasunaren irizpideen arabera lortzen den informazioa aukeratzeko irizpideak ezartzea, garrantzitsuak eta hain garrantzitsuak ez diren alderdiak bereiztea, informazio iturriak ezagutzea eta horiek alderatzea, eta informazioa modu kritikoa barneratzea edo aztertzea.

Hitzik gabeko hizkuntza, bestalde, askotan erabiltzen da errealitatea ulertzeko, eta oso lagungarria da ikonoen, ikurren eta irudien bidezko hizkuntzak ezagutzeko eta interpretatzeko. Bereziki, eta besteak beste, honako hauen kasua da: kartografiaren,

irudiaren, estatistika koadroen, diagramen hizkuntza.

Irakasgai honetan informazioak duen garrantzia dela-eta, gaitasun horren eta hizkuntza komunikazioaren gaitasunaren arteko harremanak bitxiak dira. Irakurtzea eta idaztea bi ekintza dira, eta informazioa bilatzen, biltzen eta prozesatzen laguntzen dute, eta eremuan erabiltzen diren testu motak ulertzeko, osatzeko eta erabiltzeko ere ezinbestekoak dira. Horregatik guztiagatik, irakasgaiak hainbat diskurtso mota erabiltzeko trebetasunak lortzen laguntzen du, batez ere, deskripzioa, narrazioa, hitzaldia eta argudioa erabiltzeko; hiztegia aberasten ere laguntzen du, eta, kontzeptu horiek arlo jakin bati badagozkio ere, ikaslearen ohiko hizkuntzaren zati izan behar lukete, edo irakasgaia bera ikasteko balio funtzionala duten kontzeptuak ulertzeko balio behar lukete.

Baina, horrezaz gain, nabarmena da Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiak gaitasun horrekin duen zerikusia; izan ere, lagungarria da, besteak beste, elkarriketan jarduteko, epai kritikoa eta etikoa osatzeko, ideiak sortzeko, ezaguera egituratzeko, diskurtsoari, ekintzei eta eginkizunei koherentzia eta kohesioa emateko. Gainera, bi ekintza horiek, komunikatzeak eta hitz egiteak, besteekiko eta inguruan ditugunekiko loturak eta harreman eraikitzaileak izateko trebetasunak izatea eskatzen dute; bestalde, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera ematen dute, eta, horiek, ezagutu ahala, errespetatzen eta hartzen dira aintzat. Beraz, hizkuntza komunikazioaren gaitasuna beharrezkoa da bizikidetzarako eta arazoei aurre egiteko ahalmen eraginkorrerako, eta, era berean, berdintasunerako eta estereotipoak eta adierazpen sexistak, etnizistak... ezabatzeko tresna ere izan daiteke.

Matematikarako gaitasuna lortzeko ere lagungarria da. Errealitatearen alderdi kuantitatiboak eta espazio-alderdiak ezagutzeko lagungarria da gaitasuna lortzeko, baldin eta irakasgaiak honako hauek biltzen baditu: eragiketa errazak, magnitudeak, ehunekoak eta proportzioak, oinarrizko estatistika nozioak, zenbakizko eta grafikozko eskalak, erreferentzia sistemak edo forma geometrikoen ezaugarriak, eta, halaber, neurrien irizpideak, informazioen kodifikazio numerikoa eta haren irudi grafikoa. Lanabes

horiek guztiak errealitate soziala deskribatzeko eta aztertzeko erabilia, ikasleek ikusiko dute horiek aplikatzeko egoera asko daudela, eta, ondorioz, matematikarako gaitasunean ikasitakoa funtzionalago bihurtzen da.

Ikasten ikasteko gaitasuna, bestalde, ikastea erraztuko duten lanabesak edukitzean datza, eta, horri esker, orobat, arazoen ikuspegi estrategikoa lortuko da, eta gerta daitezkeen aldaketak aurreikusten eta horietara modu positiboan egokitzen ikasiko da. Izan ere, etengabe aldatzen ari den gizarte honetan, herritar gisa bete-betean bizitzeko, edozein herritarrek ikas ditzakeen gizarte edukiak ikaragarri zabalak eta konplexuak dira. Beraz, irakasgai honetarako curriculumaren proposamena gauzatzeko, zenbait eduki hautatu behar dira, eta testuingurura egokitu; ondorioz, ez dira gizarte eduki guztiak agortuko, ezta testuinguru guztiak ere. Horregatik da garrantzitsua ikaste autonomoak gauzatzeko oinarrizko gaitasunak garatzea, zeren eta ikaste autonomoaren bitartez gauza gehiago jakitea, aurretik ikasitakoak berrikustea eta azaleratzen ari diren gizarte eta kultura testuinguruetara egokitzea lortuko baitute. Horretarako, irakasgaiak zenbait arrazoibide mota aplikatzeko ematen dituen aukerak hartu behar dira abiapuntutzat. Batetik, datuen azterketatik abiatutako arrazoibide induktiboa, gizarteko gertaeren eta gizarteko egoeren interpretazioak osatzeko; eta, bestetik, arrazoibide hipotetikoa eta deduktiboa, horren bidez beste berri batzuetarako arrazoi anitzeko lehen azalpen hurbilketak osatzeko. Hori gutxi balitz, gizartearen errealitateak eta ideologiak, baita korrante zientifikoak ere —joerak eta aurreiritziak barne— hainbat ikuspegitatik lantzea posible denez, lan serioa nahitaezkoa da pentsamendu erlatiboa lantzeko eta herritar bakoitzaren gizarte errealitateetan oinarrituta nork bere iritzia osatzeko gaitasuna lantzeko. Informazio iturriei eta horien erabilerari buruzko ezaguerak ere ematen ditu, zenbait bitarteko erabilia, lortutako informazioa bilduz eta sailkatuz, baldin eta informazio horren azterketa egiten bada. Ekarpena bestelakoa ere izan daiteke, pentsatzeko, informazioa antolatzeko, gogoan hartzeko eta berreskuratzekeo estrategiak sortzen laguntzen duenean; esaterako, laburpenak, eskemak edo kontzeptuen mapak.

Irakasgaia **norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunerako** lagungarria izateko, nahitaezkoa da plangintzetarako eta horiek gauzatzeko ekimenak bultzatzea, baita erabakiak hartzeko prozesuak bultzatzea ere; erabakiak hartzeko egoerak nabarmenago geratzen dira eztabaidetan eta bakarka edo taldeka egiten diren lanetan; izan ere, zenbait ekimen biltzen dituzte: ideiak sortu, aztertu, plangintza egin, ekin, egindakoa berrikusi, aurreikusitako helburuak eta lortutakoak alderatu eta ondorioak atera. Bestalde, irakasgaian ikasitakoak egiteko eta ekiteko lanabes gisa erabiltzeko balio behar du; hau da, gizarteak nola funtzionatzen duen eta hura nola dagoen antolatuta jakinda eta kritikoki aztertuta, alde aurretik hobeak diruditen alternatibak irudikatzeko balio behar du, horien arabera jokatzeko. Horrenbestez, bakoitza zenbait talderen partaide denez eta

zenbait erreferentzia talde dituen, talde horien prozesu historikoak aztertzea baliagarria da erabakiak hartzen laguntzeko. Erakundeak ezagutzuz gero (horiek nola funtzionatzen eta antolatzen diren eta zein eskumen dituzten), hobeto jokatuko da herritar gisa. Mikroekonomiari eta makroekonomiari buruzko zenbait oinarritzko nozio jakiteak, halaber, familia ekonomiaren arloan erabakiak hartzen laguntzen du, baita gizarte bizitzan irizpide hobeak izanda parte hartzen ere. Beraz, azken finean, gizartea nola antolatzen den eta nola funtzionatzen duen hobeto ulertzeak taldeetan aktiboki eta modu sortzailean parte hartzen laguntzen du. Eta, era berean, lan arloko etorkizunerako aukerak ikusten laguntzen die ikasleei: politikaren arloan, zuzenbidearen arloan, administrazioan, mota guztietako gizarte zerbitzuetan, etab.

2.

MATERIAL KURRIKULARRAREN EGITURA

2.1. IKASLEAREN MATERIALA

Ikaslearen materiala 14 unitate didaktikoz osatutako liburua da. Unitateak lau gai multzotan banatzen dira, gaiaren arabera. Lehenengo gai multzoa lau unitate didaktikoz osatzen dute; bigarrena bost unitate didaktikoz, hirugarrena, hiru unitate didaktikoz; eta laugarrena, bi unitate didaktikoz. Lehenengo gai multzoan, Aro Garaikidearen hastapenak aztertzen dira; bigarrenean, XX. mendeko gatazka handiak aztertzen dira; hirugarrenean, gaur egungo mundua aztertzen da eta laugarrenean, artea, kultura, zientzia eta gaur egungo komunikabideak masa kulturaren.

a) Gaiaren araberako gai multzo bakoitzak honako atal hauek ditu:

- *Ikasleak motibatze orrialde bikoitza.* Bertan, gai multzoa osatzen duten edukien egitura azaltzen da irudi argigarri eta guzti.

b) Unitate didaktikoek atal hauek dituzte:

- *Ikasleak motibatze orrialde bikoitza.* Ezkerreko orrialdean «Unitate honetan hauxe ikasiko duzu:» izeneko atala du. Unitate bakoitzean ageri diren edukien aurkibidea azaltzen da, eta horrekin batera, aztertutako edukiekin zerikusia duen irudi bat. Eskuineko orrialdeak testu motibatzailea agertzen du. Unitatean ageriko diren oinarritzko edukien aipamena egiten du, eta ondoren, «Hasteko, ea zer dakizun...» izena duen atala ageri da, unitatean landuko diren edukien diagnostika egiteko zenbait galderarekin.
- *Testuko orrialdeak.* Orrialde hauetan, unitateko eduki nagusiak garatzen dira, eta, unitate didaktikoan landutako edukien ulermena errazteko, grafikoak, taulak, argazkiak eta testu osagarriak erabiltzen ditu. Era berean, unitatean zehar egindako galderak eta testuan aipatutako kontzeptu nagusien azalpenak ere jasotzen ditu.

- *Jardueren orrialde bikoitza.* Garatu zure gaitasunak. Bi orrialdeetan zenbait gaitasun garatzeko eta unitateko edukiak lantzeko galderak egiten dira: sintesi, erlazio, aplikazio, sakontze... tankerakoak. Jarduerekin batera, argazkiak eta testu osagarriak sartzen dira, iruzkinak egiteko; honako argazkiak eta testuak unitate didaktikoan garatu diren edukien arteko sintesi gaitasuna hobetzen eta edukien arteko elkarreragina hobeto ulertzen lagunduko digute.
- *Azken orrialde bikoitza.* Ezkerreko orrialdean, prozedurak lantzeko, «Garatu lan teknikak» izeneko atala sartzen da. Prozedura horiek izaera geografikoa edo historikoa dituzten gaiei buruzko ikasketa eta lana errazten dituzte. Eskuineko orrialdean, «Ebaluatu zure gaitasunak» izeneko atala sartzen da. Ebaluazioan, testuak aztertuko dira, mapen eta irudien iruzkinak egingo dira, kontzeptuak definituko dira... Azken atal horrek unitatean zehar lortu diren ezagutzak frogatzeko balio du.

2.2. IRAKASLEAREN MATERIALA

Irakaslearen materiala liburu batek osatzen du. Liburu horren egitura honako hau da:

a) Sarrera

- Sarrera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako proiektu kurrikularrak osatzen du batik bat, eta proiektu horretan honako atal hauek azpimarratzen dira:
- DBHko proiektu kurrikularreko oinarriak.
 - Metodologia irizpideak.
 - Etapako, arloko eta zikloko helburu orokorrak, eta horien arteko elkarrekotasuna.
 - Ikasturteko edukien segida.
 - Zehar lerroak eta laburpen taula.
 - Ikasleen aniztasunaren trataerari buruzko planteamendua.
 - Ebaluazio irizpideak.

b) Gai multzoak

- Helburu didaktikoak
- Kontzeptuzko edukiak
- Ebaluazio irizpideak
- Zehar lerroak

c) Unitate didaktikoak

- Helburu didaktikoak
- Edukiak: kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak
- Ebaluazio irizpideak
- Unitate hauen ekarpena oinarritzko gaitasunak garatzeko

- Unitateen edukiei buruzko hausnarketa
- Egiaztatu ea zenbat dakizun
- Gainbegiratu ikasi duzuna
- Garatu zure gaitasunak
- Ebaluatu zure gaitasunak
- Unitateko iturri osagarriak
- Beste zenbait baliabide didaktiko
- Sendotu eta garatu ikasitakoa

d) A eranskina: Kontzeptuen eskemak

B eranskina: Hitzen glosarioa

3. METODOLOGIA

Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan, metodologiako irizpideen artean, honako Alderdi hauei erreparatzen zaie:

1. Oinarrizko printzipio pedagogikoetako bat orientazio konstruktibista dugu; gaur egungo hezkuntza sistema printzipio horretan oinarritzen da. Printzipio hori ikasketa adierazgarrian zehazten da batez ere. Etapa horretan, ikasketa horri bi alderdi zehaztatetik erantzuten zaio, hala nola:
 - a) Unitate didaktikoei heltzean, unitatean landuko diren edukien laburpen aurkibidea aurkezten da, sintesi eran. Hortik aurrera, unitatean landuko diren kontzeptuen garapena planteatzen da, eta, azalpenak behar bezala berenganatzen laguntzeko, zenbait galdera egiten dira. Era berean, azaldutako edukiak irudikatzeko eta ikasleen arreta erakartzeko, irudiak eta material grafikoa proposatzen dira. Horrela, nolabaiteko ikusmin motibatzailea sortzeaz gain, gaia lantzeko moduak unitatean azalduko diren kontzeptu, prozedura eta jarrera berriak —hitz batean, ikasketa berriak— sendotzeko aukera ematen die.
 - b) Bistakoa da ikasleentzako berriak diren ezaguera ugari dagoela unitate didaktikoan. Horregatik, ezaguera horiek pixkanaka-pixkanaka barneratzea dute helburu; izan ere, proiektu honetan gauza guztiak azaltzen saiatzen dira, ez du ezer jakintzat ematen. Gainera, orrialde guztietan, hiztegia dago, ikaslearentzat

berriak edo ezezagunak izan daitezkeen hitzen esanahi eta guzti.

2. Gaur egungo hezkuntza sistemaren beste funtsezko oinarri pedagogikoetako bat ikasketen funtzionalitatea da. Horrela, ikasleek praktikan jarri behar dituzte berenganatzen dituzten ezaguerak; bestela esanda, berenganatutako ezaguerak bizitza errealean aplikatu behar dituzte edo ikasketa berrien oinarritzat erabili. Irizpide pedagogiko hori ikasleei proposatutako ariketen bidez gauzatzen da. Ariketa horiekin guztiekin, ikasleak bereganatutako ezaguera bakoitzari buruzko ariketaren bat egitea lortu nahi da. Ikasketa berriei nolabaiteko zentzu praktikoa emateko modu bat da. Proposatutako ariketak prestatzerakoan, batez ere ikasketen funtzionalitatea hartu da kontuan.
3. Ikasleak egiten duen aurrerapenaz jabetu behar du bere eguneroko lanean. Horretarako, arloko helburuen lorpenean aurrera egiten duen jakiteko, autoebaluazio mekanismoak behar ditu. Horretarako, unitate didaktikoetan, *Ebaluazioa* atala gehitu da. Ikasleak mekanismo horren bidez, proposatutako helburuak behar bezala lortu dituen edo ez neurtu ahal izango du. Planteatutako zenbait ariketa ere baliagarri izan daitezke autoebaluaziorako. Era berean, irakasleak ere erabil ditzake aniztasunaren trataerarako.

4. HELBURUAK

4.1. ETAPAKO HELBURUAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiaren helburu nagusia etapan zehar honako gaitasun hauek lortzea izango da:

1. Talde lanak egitea eta gaur egungo gizarte errealitateari buruzko eztabaidatan parte hartzea, jarrera ekintzailez, eraikitzailez, kritikoz eta tolerantzez, partaidetza horren xedea talde laneko teknikak eskuratzea eta gizartean egoki integratzea izanda. Eztabaida horietan, iritziek behar bezalako funtsa izan behar dute, eta elkarrizketa gizakien arazoei eta gizarte arazoei aurre egiteko nahitazeko bidetzat jo behar da.
2. Pertsona bakartzat eta konplexutzat ikustea ikasleak bere burua, eta bere kalitate nahiz akats pertsonalak identifikatzea, gainerako pertsonetikiko harremanean. Ikaslea euskal herritar egitearen ezaugarriez jabetzea eta ezaugarri horiek balioestea beren konplexutasun osoan; halaber, euskal herritartasuna beste talde batzuetako kidezarekin eta gizateriako kidezarekin partekatzea, gizarte bat eraikitzen laguntzeko, tolerantziatzko eta errespetuzko jarrerak hartuz.
3. Kultura aniztasunari balioa ematea, herrien eta norbanakoaren nortasun eskubidetzat hartuta; gure komunitate sozialen eta kulturalen aniztasuna aintzat hartuz, posible izango da horietan aktiboki parte hartzea, gainerako kulturekiko tolerantziatzko eta errespetuzko jarrerak izanda.
4. Irakasgaiaren edukiak nork bere erara eta sormenez adieraztea eta komunikatzea, zenbait hizkuntza erabilia datuak eta informazioak aukeratuta eta interpretatuta, eta nork bere ikasteko prozesuari buruz hausnartuta.

4.2. IKASGAI GUZTIRAKO HELBURUAK

Ikasleak honako gaitasun hauek garatzea du helburu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia, irakasteak:

1. Gertaera sozialak arautzen dituzten oinarrizko prozesuak eta mekanismoak identifikatzea, eta baita gertaera politikoek, ekonomikoek eta kulturalen arteko elkarreagina ere, ezagutza hori erabiliz, gaur egungo gizartean bilakaeraren eta gizarte horietako gizon-emakumeek betetzen duten zereginen kausa anitzak azaltzeko; horrela, Historiaren ikuspegi zabalagoa eta kritikoagoa lortzeko.
2. Hainbat iturritako informazioa zorrotasunez bilatzea, aukeratzea eta erlazionatzea; informazioa mota askotakoa izan daiteke: hitzezkoa, grafikoa, ikonoen, estatistiken eta kartografiaren bidez emandakoa, ingurune fisikoak eta sozialak ematen duena, eta komunikabideek eta informaziorako eta komunikaziorako teknologiek ematen dutena. Ikasleak behar bezala antolatuta eta ulertzeko moduan komunikatu behar ditu informazio bilaketaren emaitzak.
3. Giza gertaerak zuzentzen dituzten oinarrizko prozesuak eta mekanismoak ezagutzea, eta ezaguera hori iragana eta gizartean antolakuntza ulertzeko erabiltzea.
4. Bereziki arloari dagokion hiztegia eskuratzea, eta zehaztasunez erabiltzea. Informazioa aukeratzea, Geografian eta Historian erabili ohi diren metodoez eta teknikez baliatuz; horrela, arazoen kausak eta ondorioak azaldu ahal izango dituzte eta iragan historikoa eta espazio geografikoa ulertuko dute.
5. Gertaera historikoak eta inguruko fenomeno geografikoak prozesu eta multzo handiagoetako zati gisa ulertzea, aztertzea eta balioestea; izan ere, horrela, munduaren baitan dauden elkarrekiko mendekotasunak eta globalizaziorako joera azalduko dira.
6. Ondarea balioestea eta errespetatzea (natura, historia, hizkuntza, kultura eta arte ondarea), eta horiek zaintzeko eta hobetzeko ardura beren gain hartzea.

4.3. GEOGRAFIA ETA HISTORIA IKASGAIKO HELBURUAK

1. Ingurune fisikoaren oinarritzko elementuak zenbait eskalatan identifikatzea, kokatzea eta aztertzea, elementu horien arteko elkarrekintza ulertzeko, giza taldeek espazioa eta hango baliabideak nola erabiltzen dituzten ulertzeko eta erabilera horiek eragiten dituzten ondorio ekonomiko, sozial, politiko eta ingurumenaren arlokoak balioesteko. Horren xedea izango da eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko modua hobetzea.
2. Europako eta munduko geografia aniztasunaren eta eremu geoekonomiko handien oinarritzko ezaugarriak identifikatzea, kokatzea eta autonomiaz aztertzea, baita Euskal Herriko ezaugarri fisikoak eta giza ezaugarriak ere. Horren guztiaren xede izango da etorkizunean behar bezala aurre egitea intereseko gizarte arazo edo giza auzi orori.
3. Euskal Herriarentzat garrantzitsuak izandako gertaera historikoen prozesuak denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea; horri esker, Euskal Herria osatzen duten lurraldeen bilakaera historiko, sozial eta kulturala ikuspegi globaletik antolatu eta garatzea. Hori guztia Europako historiaren testuinguruan identifikatu eta kokatuko dute ikasleek, horietako gertaera bakoitzaren esanahi politikoa, ekonomikoa eta kulturala aintzat hartuta.
4. Gizateriaren Historiako gertaera historiko eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea eta denboran eta espazioan kokatzea, haren bilakaeraren ikuspegi globala izateko eta hura interpretatzeko; eta, hala, komunitate sozialen aniztasunaren jatorria behar bezala ulertzeko.
5. Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko arte adierazpen garrantzitsuenak identifikatzea eta balioestea, gizadiaren arte garapenari kultura guztiek egindako ekarpenak aintzat hartzeko eta balioesteko; eta, orobat, nor bere kulturako eta beste kulturetako historia, arte, kultura eta natura ondarea balioesteko eta errespetatzeko, bere burua eta taldea aberasteko baliabidetzat hartuta.
6. Gaur egungo gizarteek dituzten arazo larrienak eta ustez horiek eragin dituzten kausa historiko-sozialak aztertzea eta ezagutzea, haiei buruz nor bere iritzia kritikoa eta arrazoitua egiteko. Halaber, ekintza eraginkorrak sustatzea eta abiatzea, pertsonen eta giza taldeen arteko harremanak hobetzeko.
7. Geografiaren, Historiaren eta, oro har, Gizarte Zientzien ezaugarriak ikertzeko kontzeptu tresnak, teknikak eta oinarritzko prozedurak aplikatzea, lan monografiko eta ikerketa txikiak egiteko (bakarka eta/edo taldeka), arloari dagokion hiztegia zehatz eta zorrotz erabilia.
8. Honako kategoria hauek antolatzea eta erabiltzea: denboraren orientazioa (iragana, orainaldia, etorkizuna); kokapen erlatiboa denboraren barruan (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia); iraupena (gertaera faktualak, koiunturazkoak, egiturazkoak, iraupen laburreko, ertaineko edo luzeko fenomenoak); denboraren neurriak (denbora unitateak, denbora eta kronologia historikoa). Horiek guztiek gizarte bilakaera eta urteen joanean gerta daitekeena antolatzeko eta laburbiltzeko balio dute.
9. Ikaslearen partaidetzako nahiz erreferentziazko taldeen eta erakundeentzako antolamendu egiturak eta ohiko funtzionamendu moduak aztertzea, gizarte demokratikoen baitan; betiere, horiek guztiek oinarritzat dituzten funtsezko balioak eta printzipioak aintzat hartuta, eta herritarren eskubideei eta askatasunei erreparatuta. Hori eginez, gizartean parte-hartze kontzientea, arduratsua, kritikoa eta erabatekoa bultzatu nahi da; diskriminazioa eta bidegabekeria eragiten duten jarrerak eta egoerak salatuko dira, eta eskubiderik gabeko edo nahitaezko baliabide ekonomikorik gabeko herri, talde sozialekin eta pertsonekin jarrera solidarioa hartuko da.
10. Europako erakundeak eta haien antolaketa politikoa eta administratiboa ezagutzea eta aztertzea, Europako Batasuna dela Europako herrien eta nazioen harremanetarako eta partaidetzarako esparrua ulertzeko.

5. GIZARTE ZIENTZIETAKO LAUGARREN MAILAKO HELBURUAK: GEOGRAFIA ETA HISTORIA

5.1. EDUKIEN SEGIDA

Kontzeptuzko edukiak honako ardatz hauen inguruan sailkatzen eta egituratzen dira:

- Ezagutza historikoa.
- Gaur egungo gizartearen aurrekari historikoak.
- Gaur egungo gizartea egituratzen duten aldaketak eta alderdi politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak .
- Artearen eta ideia estetikoaren bilakaera modernizatetik abangoardietara.

Prozedurei dagokienez, curriculumaren dekretuan proposatutako hiru prozedurazko ardatzetan aurkitzen dira:

- Azterketa eta ikerketa.
- Informazioaren tratamendua.
- Aldaketara bideratutako gizarte prozesuen analisia.

Laugarren mailan gailendu egiten dira azalpenari edo ebaluazioari begira egiten diren prozedurak. Prozedurak betiere ikasleen mailara egokituz, eta aurreko ikasturteetan eskuratutako gaitasunak kontuan hartuz, xede honekin edukien aplikazio, zabaltze, sintesi eta erlazio jarduerak aurkezten dira.

Jarrerazko ardatzei dagokienez, berriz, bereziki sustatzen da ikasleek elkarren artean gertakizun historikoak erlazionatzeko behar duten gaitasuna eta horrela, gaur egungo gizartera eraman duten eta gaur egungo aroari berezkoak zaizkion gizarte bilakaerak uler eta azal ditzaten bilatzen da.

Bestalde, ikasleen jarrera kritikoa eta burujabea bultzatu nahi da, eta gainera, aro modernoan sortzen diren balio demokratikoak eta ilustratuak, giza eskubideekiko kezka, indarkeriaren arbuioa gatazkak konpontzeko bide gisa eta, haren ordeztu, elkarriketarako deia, gizarte errealitate gaur egungoarekiko jakin-mina eta adierazpen artistiko garaikideen balioespena.

5.2. EDUKIEN GAI MULTZOAK

I. gai multzoa. Aro Garaikidearen hastapenak

1. unitatea. Argien mendea
2. unitatea. Industria Iraultza eta horren ondorioak
3. unitatea. Antzinako Erregimenaren krisia
4. unitatea. Espainiaren batasuna XIX. mendean

II. gai multzoa. XX. mendeko gatazka handiak

5. unitatea. Inperialismoa eta Lehen Mundu Gerra
6. unitatea. Gerren arteko garaia
7. unitatea. Espainia XX. mendearen lehen herenean
8. unitatea. Espainia frankismoan
9. unitatea. Bigarren Mundu Gerra eta nazioarteko antolamendu berria

III. gai multzoa. Gaur egungo mundua

10. unitatea. Mundu kapitalista
11. unitatea. Mundu komunista
12. unitatea. Trantsizioa eta demokrazia sendotzea

IV. gai multzoa. Arte, kultura, zientzia eta komunikabide garaikideak

13. unitatea. Arte eta kultura garaikideak
14. unitatea. Hedabideak eta garapen teknologikoa

5.3. UNITATEETAKO EDUKIAK

1. UNITATEA. ARGIEN MENDEA

Kontzeptuak

- Estatu modernoak.
- Europaren hedapena.
- Ilustrazioaren aurrekariak.
- Ilustrazioaren zientzia eta kultura aurrerapenak.
- Ilustrazioa: pentsamendu ekonomikoa eta politikoa.
- Despotismo ilustratua.
- Europako gobernu motak XVIII. mendean.
- Borboien erreformismoa.

- Karlos III.aren despotismo ilustratua.
- Euskal Herriaren hazkunde ekonomikoa XVIII. mendean.
- Gizarte gatazkak eta Ilustrazioa Euskal Herrian.
- Rococo artea eta neoklazisismoa.

Prozedurak

- Hainbat egileren testuak irakurtzea, interpretatzea eta iruzkina egitea.
- Termino historikoak definitzea.
- XVIII. mendean garatutako kontzeptu politiko gakoak asimilatzea.
- Mapa historikoen iruzkina egitea.
- Koadroak lantzea, XVIII. mendeko gobernu moten ezaugarri nagusiekin.
- Euskal Herriaren egoera ulertzea XVIII. mendearen testuinguruan.
- Ilustrazioaren oinarrizko ideiei buruz eztabaidatzea.

Jarrerak

- Ilustrazioa oinarritzen den pentsamenduaren sistemak ulertzeko interesa.
- Argien mendeak ekarri zuen kultura, gizarte, ekonomia eta politika iraultza balioestea.
- Jarrera kritikoa, Antzinako Erregimenaren gobernu eta gizarte antolamendu moduei dagokienez.
- Pentsalari ilustratuek sustatutako askatasunen gorakadaz kontzientzia hartzea.
- Despotismo eta absolutismo modu guztien analisi kritikoa.
- Parlamentu sistema ulertzea eta balioestea, absolutismoaren eta despotismoaren aurka.
- Sentiberatzea, arte lanen aurrean.

2. UNITATEA. INDUSTRIA IRAULTZA ETA HORREN ONDORIOAK

Kontzeptuak

- Industria Iraultzaren aurrekariak.
- Lehen Industria Iraultza.
- Bigarren Industria Iraultza.
- Gizarte eta ekonomia aldaketak.
- Langileen mugimendua.
- Errusiako iraultza.

Prozedurak

- Unitatearen edukiekin lotutako kontzeptuak definitzea.
- Migrazio prozesuen inguruan eskuratutako ezagupenak aplikatzea, mapa baten iruzkinaren bitartez.

- Unitatearen datu garrantzitsuenen arteko erlazioa ezartzea.
- Errusiako iraultzaren ezaugarrien azterlana, testu iruzkin baten bitartez.
- Unitatean aipatzen diren gertakizun nagusien sintesia egitea.
- Langileen bi ideologia nagusiak elkarren artean erkatzea, bi testuren irakurketaren bitartez.
- Langileen mugimendu internazionalistari buruzko idazlana egitea.

Jarrerak

- Interesa, industria iraultza ezagutzeko, bere berezitasun, aurrerapen tekniko eta lurralde diferentziekin.
- Baldintza demografikoekin lotutako gizarte aldaketak, klaseen gizartearen sorrera eta Europako migrazioak ulertzeko gogoia.
- Industria Iraultzatik sortutako aldaketa ekonomikoen analisi kritikoa.
- Langileen klasearen sorreraz eta antolatu zen moduez jabetzeko interesa.
- Aldaketa sozioekonomikoek behartutako migrazio prozesuekiko sentiberatasuna lantzeko interesa.
- Industria Iraultza taxutu zuten ideologia iraultzaileen eta ideologia burgesen analisi kritikoa.
- Sobietar Batasunaren eraikuntza prozesua ezagutzeko interesa.

3. UNITATEA. ANTZINAKO ERREGIMENAREN KRISIA

Kontzeptuak

- Antzinako Erregimenaren amaiera.
- Iraultza eta independentzia amerikarra.
- Frantziako Iraultza.
- Berrezarkuntza.
- Nazionalismoak.
- Arte erromantikoa, errealista eta inpresionista.

Prozedurak

- Unitatearen edukiekin lotutako kontzeptuak definitzea.
- Iraultza amerikarraren inguruan eskuratutako ezagupenak aplikatzea.
- Frantziako Iraultzaren faseen azterketa egitea, testu baten irakurketaren eta iruzkinaren bitartez.
- Unitatearen ezagupen garrantzitsuenen arteko erlazioa ezartzea.
- Berrezarkuntzari buruzko galderak egitea.

- XIX. mendeko nazionalismoei buruzko testu baten iruzkina eta galderak egitea.
- XIX. mendeko artea aztertzea, irudien iruzkina eginez.
- XIX. mendeko prozesu iraultzaile liberala aztertzea, margolan baten bitartez.

Jarrerak

- Antzinako Erregimenaren egoera kritikoa identifikatzeko interesa.
- Iraultza amerikarraren prozesua ezagutzeko interesa, baita independentzia amerikarra ezagutzekoa ere.
- Konstituzio amerikarraren garrantzia aintzat hartzea.
- Frantziak bizi zuen egoera ulertzeko interesa Frantziako Iraultzaren aurretik.
- Frantziako Iraultzak garaitu ondoren etorri ziren hainbat fase balioestea.
- Napoleonen gobernuak Europan izan zituen ondorioak ulertzeko gogoia.
- Vienako Biltzarrak ezarritako aldaketa geopolitikoak azaltzeko jarrera kritikoa garatzea, baita Aliantza Santuaren garrantzia ere.
- XIX. mendean gertatu ziren prozesu iraultzaile liberalak identifikatzeko interesa.
- XIX. mendeko Europako esparruan sortutako nazionalismoen balioespen kritikoa.
- Italiaren eta Alemaniaren batasun prozesuak ezagutzeko interesa.
- Arte erromantiko, errealista eta inpresionistarekiko sentiberatasuna.

4. UNITATEA. ESPAINIAREN BATASUNA XIX. MENDEAN

Kontzeptuak

- Antzinako Erregimenaren krisia Espainian.
- Independentzia Gerra.
- Cadizko Gorteak eta 1812ko Konstituzioa.
- Fernando VII.aren erreinaldia.
- Kolonia amerikarren independentzia.
- Estatu liberalaren eraikuntza Isabel II.aren.
- 1868ko Iraultza eta seiurteko demokratikoa.
- Alfontso XII.aren Berrezarpena.
- 1980ko *Desastrea*.
- Aldaketa ekonomikoak eta sozialak.

- Espainiako artea eta kultura XIX. mendean.

Prozedurak

- Unitatearekin zerikusia duten kontzeptu garrantzizkoenak definitzea.
- Independentziaren Gerrari buruz lortutako ezagupen guztiak testu iruzkin batean aplikatzea.
- Unitate honetan ikasitako edukien zerrenda egitea.
- Konstituzioen analisia konparazio taula batean egitea.
- Kolonia amerikarraren askapen prozesua aztertzea, gaiari buruzko testu baten irakurketaren eta iruzkinaren bitartez.
- Berrezarpen prozesuaren sintesia lantzea, gaiari buruzko testu baten bitartez.
- Aldaketa ekonomiko nagusiak definitzea, trenbideen hedapenaren mapa baten bitartez.
- Unitatean garatzen diren eduki nagusien sintesia egitea.

Jarrerak

- Konstituzioaren garrantzia balioestea, legeriaren oinarri gisa eta haren justiziaren berme gisa.
- Interesa, kolonia amerikarren independentzia prozesuaren garapena ezagutzeko.
- Espainian XIX. mendean bizitako prozesu politikoak ezagutzeko kezka izatea, baita haiek ekarri zituzten Konstituzioak eta gaur egungo Estatu liberalaren oinarriak ezarri zituztenak.
- Estatu kolpeen, gobernu demokratikoen eta gobernu absolutisten segidak ekarri zuen ezegonkortasun politikoaren berri izateko interesa.
- Garai hartan gertatu ziren gerrak ezagutzeko interesa.
- 1980ko *Desastreak* izan zuen ondorioaren balioespena egiteko interesa.

5. UNITATEA. IMPERIALISMOA ETA LEHEN MUNDU GERRA

Kontzeptuak

- Imperialismoa.
- Kolonizazioa.
- Bismarcken sistemak.
- Gaitasun ekonomikoa, estrategikoa eta lurralde mailakoa.
- Lehen Mundu Gerra.

- Bake itunak eta lurralde berrantolamendua.
- Pentsamendu korrante berriak.
- Garapen zientifikoa.

Prozedurak

- Unitatearekin zerikusia duten edukiak definitzea.
- Gailentzen diren kontzeptuen zerrenda egitea.
- Inperialismoaren arrazoiak aztertzea, testu baten irakurketaren eta iruzkinaren bitartez.
- Afrikako eta Asiako prozesu kolonizatzaileei buruzko bi testu konparatzea.
- Inperialismoaren ondorioei buruzko eta garaiko kulturaren garapenari buruzko idazlanak egitea.
- Bismarcken sistemen analisia egitea, laburpen taula baten bitartez.
- Lehen Mundu Gerraren faseen sintesia lantzea, gaiari buruzko testu bat ulertuz.
- Gerraren ondorioei buruzko ezagupenen aplikazioa, taula estatistikoko baten analisiaren bitartez.
- Europaren lurralde berrantolamenduaren azterketa, mapa baten analisiaren bitartez.

Jarrerak

- Garaiko potentzia nagusien egoera politikoa ezagutzeko jakin-mina.
- Jarrera kritikoa, inperialismoaren kausak eta bere garapena aztertzeko orduan.
- Gaur egun ondorio horiek duten eraginaren konparazio analisia egiteko gogoia.
- Estatu Batuen eta Errusiaren izaera inperialista eta esku-hartzailea ezagutzeko interesa.
- Arrazakeria, inbasio kolonialista eta herrian zapalkuntza arbuiatzeko interesa.
- Garaiko diplomaziaren garapenarekiko interesa.
- Lehen Mundu Gerraren ezaugarri bereziki suntsitzaileez jabetzea, zentzu horretan orain arte izan den okerrera.
- Jarrera kritikoa, gerra piztu zuten interes politikoei eta ekonomikoei dagokienez.
- Gatazkak konpontzeko tolerantzia ohiturak garatzeko gogoia.
- Gatazkak bukatzeko nazioarteko erakundeen garrantzia onartzea.

6. UNITATEA. GERREN ARTEKO GARAIA

Kontzeptuak

- Gerra ondoko egoera.
- «Hogeiko urte zorientsuak».
- *29ko cracka*
- Depresioa Handia.
- *New Deal*.
- Mendebaldeko demokraziak.
- Faxismoak.
- Abangoardia artistikoak.
- Aurrerapen teknikoak.

Prozedurak

- Unitatearen kontzeptu garrantzitsuenak definitzea eta zerrenda egitea.
- Nazioen Elkartearen ekintza nagusiekin taula bat egitea.
- 29ko burtsa krisiaren azterketa egitea, testu iruzkin baten eta estatistika taulen analisiaren bitartez.
- Mendebaldeko demokrazia nagusien egoeraren azterketa, konparazio taula baten bitartez.
- Italiako faxismoari buruzko testu bat irakurtzea eta iruzkina egitea.
- Alemanian alderdi naziak egindako gizartearen berrantolamenduari buruzko testu baten iruzkina egitea.
- Abangoardien ezaugarri nagusiak bereiztea, margolan baten iruzkinaren bitartez.

Jarrerak

- Nazioen Elkarreak aurre egin behar izan zituen zailtasunak balioestea.
- Finantza espekulazioaren eta industria gainproduktzioaren ondorioak ezagutzeko interesa.
- Sentiberatasuna, langabezia eta pobrezia egoerei dagokienez.
- Totalitarismoen aurrean arbuio aktiboaren jarrera izatea.
- Demokrazia balioestea, askatasuna eta tolerantzia bultzatzen duen sistema politiko gisa.
- Abangoardia artistikoek ekarri zuten berritasuna eta indarrean zegoena hausteko zuten joera balioestea.
- Garaiko lorpen zientifikoak ezagutzeko interesa, baita gaur egun duten garrantzia ere.

7. UNITATEA. ESPAINIA XX. MENDEAREN LEHEN HERENEAN

Kontzeptuak

- Alfontso XIII.aren erreinaldia.
- Berrezarkuntza sistemaren krisia.
- Erreinaldiaren amaiera.
- Primo de Riveraren diktadura.
- Bigarren Errepublika.
- Espainiako Gerra Zibila.
- Kultura eta artea: Espainiako kulturaren zilarrezko aroa.

Prozedurak

- Unitatearen kontzeptu adierazgarrienen zerrenda egitea.
- Gerra Zibilaren eta bi aldeen mugimendu nagusien azterketa egitea, mapa baten bitartez.
- Unitatean agertzen diren kontzeptu nagusiak definitzea.
- Garaiko bi joera politiko nagusien konparazioa egitea eta diferentziak ezartzea.
- 1934ko testu konstituzionalaren analisia eta iruzkina egitea.
- Gerra Zibilaren ondorioei buruzko idazlana egitea.
- 1931ko Konstituzioaren ezaugarri nagusiak aztertzea eta iruzkina egitea, testu baten bitartez.

Jarrerak

- Herrialdearen giro politikoa eta soziala onera ekartzeko Alfontso XIII.aren erreinaldian egin ziren ahaleginei buruzko jarrera gogoetatsua eta kritikoa.
- Bigarren Errepublikan egindako ahaleginak balioestea, Espainiako bizitzako arlo guztietan sortu ziren arazo guztiak konpontzeko: arlo sozialean, politikoan, ekonomikoan...
- Muturreko eta indarkeriazko mugimendu oro arbuiatzeko interesa, arazoak eta diferentziak ebazteko modu gisa.
- Sentiberatasuna, Gerra Zibilean gertatu ziren giza galerekiko.
- Espainiako kulturaren Zilarrezko Aroaren adierazpen artistikoekiko interesa.

8. UNITATEA. ESPAINIA FRANKISMOAN

Kontzeptuak

- Erregimen frankistaren oinarriak.
- Erregimen frankistaren bilakaera.

- Erregimenaren aurkako oposizioa.
- Gizarte aldaketak frankismo garaian.
- Euskal Herria erregimen frankistaren garaian.

Prozedurak

- Unitatearekin zerikusia duten kontzeptuak definitzea.
- Frankismoaren bilakaera aztertzea, taulen bitartez.
- Espainiaren hastapeneko nazioarteko isolamenduaren iruzkina egitea, testu baten analisiaren bitartez.
- Bigarren Errepublikaren eta frankismoaren sistema politikoaren arteko konparazio azterketa egitea.
- Garaiko filmen eta zinemako hizkeraren iruzkina egitea.
- Frankismo garaiko biztanleria aktiboaren eta sektore ekonomikoen analisia egitea, taula baten bitartez.
- Unitatearen gertakizun nagusien laburpenak egitea.
- Frankismo garaiko politika eta gizartea gaur egungoarekin konparatzea.

Jarrerak

- Frankismo garaia ezagutzeko interesa, baita horren ezaugarri politikoak, ekonomikoak eta sozialak ere.
- Jarrera kritikoa, gertakizun historikoen interpretazioari dagokionez.
- Frankismo garaian izan ziren gizarte aldaketak ulertzeko interesa.
- Muturreko jarrera politikoak arbuiatzekok gogo.
- Giza eskubideak errespetatzen ez dituzten erregimenak gaitzestea.
- Oposizioaren zeregina balioztatzea.
- Migrazio mugimenduekiko sentiberatasuna.
- Penintsulako Euskal Herrian aro horren berezitasunak ezagutzeko interesa.

9. UNITATEA. BIGARREN MUNDU GERRA ETA NAZIOARTEKO ANTOLAMENDU BERRIA

Kontzeptuak

- Nazioarteko egoera.
- Bigarren Mundu Gerra.
- Gerra hotza.
- Deskolonizazioa.
- Zientzia, kultura eta artea.

Prozedurak

- Garai hartako testuinguru ekonomikoak eta politikoak Bigarren Mundu Gerra sortzearekin duen erlazioa ezartzea.
- Alemaniaren aurrera egitearen analisia egitea mapa baten bitartez.
- Unitatean zehar agertzen diren kontzeptuak definitzea.
- Gerra hotza eta altzairuzko hesia arrazoitzea testu baten bitartez.
- Gerra hotzean izan ziren krisi nagusietako baten azterketa egitea.
- Deskolonizazio prozesuak azaltzea.
- Garaiko arkitektura arte berria aztertzea, eraikin adierazgarri baten bitartez.

Jarrerak

- Sentiberatasuna, gaur egun indarrean dauden munduko krisiei dagokienez.
- Gerrek ez dutela ezein arazo konpontzen erabat sinetsita egotea, are gehiago, jadanik zailak diren egoerak okerragotzen dituztela.
- Arazoen iturriak ezagutzeko interesa, gatazkak saihesteko bitarteko gisa.
- Gerra mugimendu oro arbuiatzea.
- Mugimendu bakezaleek, ekologistek eta feministek egindako lana balioestea.

10. UNITATEA. MUNDU KAPITALISTA**Kontzeptuak**

- Mundu kapitalistaren ezaugarriak.
- Ameriketako Estatu Batuen bilakaera politikoa.
- Mendebaldeko Europaren bilakaera politikoa.
- Europar Batasunaren eraketa.
- Japoniaren bilakaera politikoa.
- Latinoamerikaren ibilbide politikoa.

Prozedurak

- Unitatean zehar agertzen diren kontzeptuak eta terminoak definitzea.
- Estatu Batuetatik Europara bideratutako laguntzaren analisia eta azterketa egitea, taula baten bitartez.
- Europar Batasuneko zabaltze faseak aztertzea.
- Gertakizun jakinekin erlacionatutako testuen iruzkina egitea.
- Malcom X eta Martin Luther King nor izan ziren jakitea eta haien doktrinari buruzko ikerketa egitea.
- Irudien iruzkina egitea iturri historiko gisa.

Jarrerak

- Mundu kapitalistaren bilakaera ezagutzeko interesa.

- Jarrera kritikoa, Estatu Batuek XX. mendeko gatazka ugaritan izan duten esku-hartze militarretan.
- Europako batasunaren abantailak eta eragozpenak balioestea.
- Japoniar eredu ekonomikoaren berezitasunak jakiteko interesa.
- Jarrera kritikoa, Latinoamerikan izan diren era askotako formei dagokienez.
- Ongizatearen Estatuaren bilakaerari dagokionez, jarrera kritikoa eta hura balioestea.

11. UNITATEA. MUNDU KOMUNISTA**Kontzeptuak**

- Mundu komunistaren ezaugarriak.
- Sobietar Batasunaren bilakaera politikoa.
- Herri demokrazien bilakaera politikoa, Ekialdeko Europan.
- Txinaren bilakaera politikoa.

Prozedurak

- Terminoak eta kontzeptuak definitzea eta zerrenda egitea.
- Diferentzia ekonomikoak eta politikoak sistema komunistaren eta kapitalistaren artean.
- Estalinismoaren azterketa egitea bere azken fasean.
- Maoismoaren faseen iruzkina eta analisia egitea.
- Hainbat Estaturen desintegrazioa aztertzea, mapen bitartez.
- Jugoslaviako estatuaren desegitea aztertzea eta iruzkina egitea.

Jarrerak

- Totalitarismoa arbuiatzea, gobernu forma gisa.
- Indarkeriazko metodoak arbuiatzea, tresna politiko gisa.
- Sentiberatasuna, Europako Ekialdeko herrialdeen bilakaera politikoari dagokionez.
- Beren jatorrizko herrialdeetatik kanpo bizi diren gutxiengoenganako ulermena eta errespetua agertzea.
- Sistema komunistaren krisia ulertzeko interesa.

12. UNITATEA. TRANTSIZIOA ETA DEMOKRAZIA SENDOTZEA**Kontzeptuak**

- Trantsizioa.
- 1978ko Konstituzioa.

- Autonomien Estatuak.
- Trantsizioak eragindako aldaketak.
- Demokraziaren sendotzea.
- Gobernu demokratikoak.
- Egoera demokrazian.

Prozedurak

- Unitatearen edukiekin zerikusia duten kontzeptuak definitzea eta zerrenda egitea.
- Trantsizioari eta demokraziaren sendotzeari buruz eskuratutako ezagupenen aplikazioa egitea.
- Erreforma politikoaren prozesuak aztertzea, testu baten analisiaren eta iruzkinaren bitartez.
- Testu baten iruzkina egitea, Hego Euskal Herrian Trantsizioan bizi izan zen egoera soziopolitikoari buruz.
- Europar Batasunean Espainiak izan zuen sarrerari buruzko idazlana egitea.
- Gobernu demokratikoak deskribatzea, konparazio taula baten bitartez.
- Aldi demokratikoan Espainiako gizartean gertatu ziren aldaketei buruzko galderak egitea.
- Hego Euskal Herrian demokraziaren sendotzea aztertzea, idazlan baten bitartez.

Jarrerak

- Trantsizio garaiko prozesu politikoak ezagutzeko interesa.
- 1978ko Konstituzioaren garrantzia balioztatzea, baita Autonomien Estatuarena ere.
- Politikoek, intelektualek, artistek eta herritarrek oro har demokrazian duten jarrera balioestea.
- Jarrera kritikoa, gobernu diktatorialeri eta autoritarioei dagokienez.
- Demokrazia sendotzeak duen garrantzia ulertzeko interesa.
- Europar Batasunean sartzeak dakartzan era askotako alderdiak balioestea.

13. UNITATEA. ARTE ETA KULTURA GARAIKIDEAK

Kontzeptuak

- Aldaketa kulturalak: konformismoa, kontrakultura, politizazioa eta postmodernitatea.
- Masa kultura.
- Nazioarteko korrante artistikoak: informalismoa, arte kontzeptuala, *pop art*, *op art*, neodadaismoa, hiperrealismoa eta minimalismoa.

- Arkitekturaren joerak: mugimendu modernoa, joera berriak.
- Arte garaikidea, Espainian: informalismoa, figurazioa, konpromiso politikoa, kritika soziala.
- Arte garaikidea, Euskal Herrian: eskultore handiak, pintura, konpromiso kulturala, kritika soziala eta politikoa.

Prozedurak

- Unitatearen kontzeptu garrantzitsuenak definitzea eta zerrenda egitea.
- Mendearren bigarren erdialdeko kultura aldaketen azterlana egitea, bi irudi motibagarrien bitartez.
- Masa kulturaren analisia egitea, testu baten irakurketaren era iruzkinaren bitartez.
- Konparazio taula bat egitea nazioarte korrante artistikoen ezaugarri nagusiekin.
- Nazioarteko arte garaikidearen garapena zein izan den jakitea, gaiarekin zerikusia duen testu baten irakurketaren eta iruzkinaren bitartez.
- Nazioarte arkitektura joera nagusiak aztertzea, idazlan baten bitartez.
- Espainiako arte garaikidea ulertzea, lan adierazgarrienen analisiaren bitartez.
- Euskal Herrian eskulturak izan duen garapena zein izan den jakitea, idazlan baten bitartez.

Jarrerak

- Kulturaren bilakaera balioestea bere esparru sozialean, Bigarren Gerra Mundutik aurrera.
- Jarrera kritikoa eta gogoetatsua, masa kulturari dagokionez.
- Nazioartean joera artistiko nagusiak balioztatzea.
- Korrante artistiko berrien osagai berritzailea eta originala balioztatzea.
- Arte garaikidearen joera intelektualizatzailea ulertzeko interesa.
- Espainiako eta Euskal Herriko artearen eta kulturaren egoera zehatzaren balioespen kritikoa egitea.

14. UNITATEA. HEDABIDEAK ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOA

Kontzeptuak

- Informazioaren gizartea eta ezagutzaren gizartea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

- Aro digitala.
- Internet.
- Herrixka globala.
- Muga digitala.
- Bioteknologia.
- Ingeniaritza genetikoa, klonazioa, giza genoma.
- Ikerketa espaziala.
- Ingurumena.

Prozedurak

- Unitatearen kontzeptu garrantzitsuenak definitzea eta zerrenda egitea.
- IKTen funtsezko ezaugarriak eta haien hedapena aztertzea, testu iruzkinen bitartez.
- Informazioaren komunikazio eta hedapen modu berrien analisia egitea, idazlan baten bitartez.
- Testu iruzkin bat egitea, IKTen hedapenaren ondorioei buruz.
- Bioingeniaritzan izan diren aurrerapenei buruzko testu baten irakurketa eta analisia egitea.

- Gaur egungo ingurumen arazoak ulertzea, gaiari buruzko idazlan baten bitartez.

Jarrerak

- Hedabideen garapena dakartzaten aldaketa sozialen eta kulturalen balioespena.
- Informazioaren gizartearen eta ezagutzaren gizartearen arteko diferentzia balioztatzea.
- IKTen garapenaren eta hedapenaren alderdi positiboak eta negatiboak buruzko gogoeta.
- Gaur egun dauden era askotako muga digitalak ulertzeko interesa.
- «Herrixka global»aren ondorioak balioestea.
- Bioteknologien garapenaren garrantzia balioztatzea.
- Gogoeta, gaur egungo ingurumen arazoei buruz, eta jarrera kritikoa, haien hedapenaren eta garapenari dagokienez.



ZEHAR LERROAK

Zehar lerroak ez dira espresuki aipatzen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean, baina gizabanakoaren heziketa osorako garrantzitsua denez, eta bereziki, *Geografia eta Historia* ikasgairako, aurreko hezkuntza etapetan eman zaion adinako garrantzia eskaintzera bultzatu gaitu. Zehar lerroen helburua ikasleek gizartean modu aktiboan eta kritikoan sartzeko ezinbestekoak dituzten gaitasunak garatzen laguntzea da. Arreta berezia ematen zaie gurearen antzera demokratikoa eta pluralista den gizarteak berezko dituen ingurumen hezkuntzari eta gizalegerako eta moralerako hezkuntzari. Jakin badakigu gai horiek ikastetxeko materia eta ariketa guztietan barneratuta egon behar dutela, bai eta *Geografia eta Historia* bereziki egokia dela ere gai horiek garatzeko ere.

Giza eskubide eta bakerako hezkuntza

Zehar lerro horrek balio hauetan jartzen du arreta: elkartasuna, tolerantzia, aniztasunari errespetua eta elkarrizketarako gaitasuna, eta gizartearen parte-hartzea. Bakearen kontzeptuak gerra eta gerraren kausak gaitzesteaz gain, mota guztietako indarkeriaren eta injustizia sozialaren gaitzespena ere barnean hartzen ditu. Ikasleak konturarazi nahi dira gatazka ez dela gertaera negatiboa, baizik eta gizakiarekin berarekin datorren prozesua dela, eta, behar bezala bideratuz gero, sortze eta aurrerapen prozesua izan daitekeela. Zehar lerro horrek zenbait osagai ditu: nazioarteko ulermenerako hezkuntza, giza eskubideetan heztekoa, desarmerako hezkuntza, garapenerako hezkuntza eta herrien arteko elkartasunerako hezkuntza.

Sexuen arteko aukera berdintasunerako hezkuntza

Sexuen arteko aukera berdintasunerako hezkuntzak sexu arrazoiagatiko desberdintasun eta diskriminazio jakin batzuk gaitzestea du helburu, aniztasunari zor zaion errespetuarekin eta balioespenarekin bat. Sexuen arteko aukera berdintasuna bultzatuko duten jarrerak sustatu nahi dira. Gai horrek maila teorikoan

zalantzarik sortzen ez badu ere, praktikan, hutsune handiak ditu oraindik ere. Fenomeno hori nabarmena izan da *Geografia eta Historia* arloan, ez baita emakumeek zenbait arlo ekonomikotan eta gizarte arlotan buruturiko lana ezertarako kontuan hartu, eta gainera, lan munduan jasaten duten diskriminazioa ere bistakoa da. Esparru horretan helburua bikoitza da: batetik, eremu guztietan emakumeen benetako parte-hartzea sustatzea; eta, bestetik, erabakiak hartzerakoan, emakumeen parte-hartzea eragozten duten oztupoak gaitzestea. Sexuen berdintasunerako hezkuntzak ikasleak eguneroko bizitzan eta *Geografia eta Historia* arloan, desberdintasun egoerak eta kausa eragileak identifikatzeko eta berdintasun balioen arabera jarduteko gai izatea proposatzen du.

Komunikabideen inguruko hezkuntza

Komunikabideen inguruko hezkuntzak ikasleengan jarduera eta irizpide autonomia garatzea du helburu, gure kulturari eta, bereziki, fenomeno geografiko, gizarte historiko eta adierazpen artistikoen esparruei dagokionez. Ikasleak konturatu behar du kontsumitzailea dela, kontsumitzaile gisa eskubideak eta betebeharrak dituela, eta kontsumo gizarteak nola funtzionatzen duen. Zehar lerro horrek komunikabideak behar bezala erabiltzeak duen garrantzia azpimarratu nahi du. Hori dela eta, ikasleari kontsumitzaile kritikoa izaten eta komunikabideak modu objektiboan erabiltzen erakusten dio. Horrela, kalitatezko informazioa eta informazio erabilgarria identifikatzen jakingo du, bai eta fenomeno geografikoak, gertaera historiko eta kulturalak eta, beraz, herritarra bera manipulatu nahi duten informazioari igartzen ere.

Ingurumen hezkuntza

Ingurumenaren kontzeptu horrek errealitate fisikoa eta naturala eta gizakiaren jarduerak eta jarduera horiek ingurumenaren gain dituzten eraginak ere barne hartzen ditu. Une honetan, gizakiaren arazo handienetariko bat ingurumena zaintzea eta babestea da. Alderdi hori luze eta zabal aztertzen da *Geografia eta*

Historia arloko gai horretan.

Ikasleek ingurunea bere konplexutasunean ulertzea eta ingurumeneko arazoak identifikatzea eta aztertzea da zehar lerro horren helburua. Ingurumena balioesteko eta errespetatzeko jarrerak garatzea eta ingurumena zaintzen eta hobetzen parte hartzea ere lortu nahi du.

Garapenerako hezkuntza

Zehar lerro horrek berebiziko garrantzia du gure hezkuntza sistemako proiektuan; izan ere, defendatzen dugun eta lortu nahi dugun pertsona ereduaren oinarritzko ezaugarriak biltzeko aukera ematen digu. Garapenerako hezkuntzak jakinaren gainean hartutako jarrera moral eta etikoa sustatzen du, balio demokratiko, solidario eta parte-hartzaileekin bat datorren jarrera, hain zuzen ere. Balio horiek *Geografia eta Historia* arloari aplikatu dakizkioke.

Garapenerako hezkuntzak ikaslearen garapen pertsonala eta soziala sustatzea du helburu, bai eta honako jarrera hauek sustatzea ere: pertsonenganako errespetua, diskriminatutako taldeekiko elkartasuna, bizikidetzeta eta elkarrizketa harremanak, gizarteko injustizien gaitzespena eta balioespena, eta aniztasuna balio positibo gisa; beraz, printzipio horiek fenomeno geografikoei, historikoei eta artistikoei aplikatzea.

Hori dela eta, garapenerako hezkuntza egoki bat lortzeko, helburuak honako hauek izan behar dute:

- Ikasleen artean, eta betiere, bizi diren gizartearen baitan, euren nortasunen garapen pertsonala eta kritikoa sustatzea.
- Garapen pertsonal hori gaur egungo gizarte eta kultura egoera berrian txertatzea. Egun, kulturartekotasuna da nagusi.

- Eguneroko errealitateko bidegabekeriak, indarrean dauden gizarte arauak eta aurreiritziak aurkitzea eta kritikatzeta.
- Pertsonen, taldeen eta kulturen arteko eremuetan, bizimodu justuagoak eraikitzea.
- Errealitatea kritikoki juzgatu ahal izateko, balio printzipio orokorrak bere kasa eta arazoiz jokatzuz lantzea.
- Pertsonalki eraikitako printzipio eta arauekin koherentea den jokabidea sustatzea.

Osasunerako hezkuntza

Osasunerako hezkuntzaren helburua ikasleek ingurune fisikoarekin, biologikoarekin eta soziokulturalarekin orekan bizitzeko duten gaitasuna ahalik eta gehien garatzea eta norberaren organismoaren funtzionamendua hobetzea da.

Sexu heziketa ere barnean hartzen du osasunaren kontzeptu horrek. Ikasleek gizonen eta emakumeen rola ezagutzea eta aintzat hartzea lortu nahi du, eta sexualitatea pertsonen arteko erabateko komunikazio jardura moduan ulertzea. Alderdi biologikoei buruzko informazioa emateaz gain, bizitza sexualarekin lotutako alderdi afektiboei, emozionalei eta sozialei buruzko informazioa ere ematen du.

Bide hezkuntza da osasunerako hezkuntzaren beste alderdietako bat. Autoestimua eta norberaren gorputza zaintzea proposatzen du, norberaren eta gainerakoen istripuak prebenitzeko.

Beraz, *Geografia eta Historia* arloko gaia bereziki egokia da zehar lerroek defendatzen dituzten balioak garatzeko, sustatzeko eta nork bere egiteko.

Unitate didaktikoen eta zehar lerroen arteko lotura

Unitatea	Giza eskubide eta bakerako hezkuntza	Sexuen arteko aukera berdintasunerako hezkuntza	Komunikatibitateen inguruko hezkuntza	Ingurumen hezkuntza	Garapenerako hezkuntza	Osasunerako hezkuntza
1	x				x	
2	x				x	x
3	x		x		x	
4	x				x	
5	x			x	x	x
6	x	x	x		x	
7	x	x	x		x	
8	x	x	x	x	x	x
9	x	x	x		x	
10	x	x	x		x	
11	x	x	x		x	
12	x	x	x		x	
13	x	x			x	
14	x	x	x		x	



ANIZTASUNAREN TRATAERA

Gaur egungo hezkuntza sistemak eskola irekiaren aldeko apustua egin du, alegia, ikasle guztiei heziketa eta hezkuntza aukera berdinak ematen dizkien eskola, ikasleen gizarte maila, sexua, arraza, baliabide ekonomikoak eta bestelako ezaugarriak kontuan hartzen ez dituen.

Eskola irekiaren printzipioa aniztasunaren trataera berezituarekin osatu behar da. Eskolak hainbat gaitasun, interes eta motibazio duten ikasle talde guztiz heterogeneoaren heziketa beharrei erantzun behar die. Ikasleen arteko desberdintasunak handiagoak dira garapen ebolutiboan aurrera egin ahala. Baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan garrantzitsua izango da ikasleen aniztasunaren trataera kontuan hartzea.

Aniztasun hori jarraian aztertuko ditugun hainbat esparrutan ematen da aditzera; esparru horiek *Geografia eta Historia* gaiarekin erlazionatuta eta lotuta daude:

- a) *Ikasteko gaitasuna*. Gizakiak hezkuntzaren eraginez *Geografia eta Historia* arloarekin lotutako ikasketak errepikatzeko duen gaitasuna. Ikasteko gaitasuna ez da berezkoa, estatikoa eta hezkuntzaren inolako eraginik ez duen gaitasun intelektuala, baizik eta ikasleak fenomeno geografiko, historiko eta artistikoei buruz jakintza batzuk bereganatzeko duen asmo moduan ulertu behar da.
- b) *Ikasteko motibazioa*. Ikasteko gaitasuna baldintzatzen duen prozesua da. Hori dela eta, jarduera hezitzaileak behin eta berriz azpimarratu behar du honako alderdi hau: ikaslea *Geografia eta Historia* gaiarekin lotutako ikasketa jakin batzuk egitera bultzatu behar dela. Motibazioa zenbait faktoreen menpe dago: batetik, ikasleak izandako arrakastak eta porrotak daude; eta, bestetik, egindako ikasketek duten garrantzia eta funtzionalitatea. Hau da, ikaslearentzat zentzua eta balio praktikoa duten ikasketak eta *Geografia eta Historia* arloarekin lotutako etorkizuneko ikasketa berrien oinarritzat balio dutenak.
- c) *Interes pertsonalak*. Fenomeno

geografikoen oinarritzko nozioak ikasteko, motibazioa baldintzatzen dute. Etapa honetan, etorkizun akademikoarekin eta profesionalarekin lotura dute.

- d) *Ikasketa estiloak*. Pertsonak zenbait ikasketa estilo garatzen dituzte, eta honako alderdiei buruzko desberdintasunak adierazten:

- Pentsamendu motak: gogoetatsua (atazak aztertze behar adina denbora hartzen du) edo oldarkorra; analitikoak (ataza ikuspegi zabal eta orokorretik lantzen du eta, ondoren, xehetasunak hartzen ditu kontuan) edo sintetikoa (berezitasunetik orokortasunera).
- Lehentasunezko modalitate sentzoriala.
- Atazari jartzen zaion arreta maila.
- Laguntza mota egokiena.
- Taldekatzeko lehentasunak.

- e) *Zenbait ikasleren zailtasunak*. Ikasleek zenbait arazorekin lotutako hezkuntza beharrak izan ditzakete, esaterako, psikomotrizitate arazoekin, arazo sentzorialekin, garapenean atzerapenak dituztenekin lotutako beharrak, etab. Hezkuntza behar puntualak edoaldi baterakoak ere izan daitezke, egoera zail bati aurre egin beharrak edo gai zehatz bat ikasteko arazoak —adibidez, *Geografia eta Historia* ikasteko arazoak— eragindakoak, hain zuzen ere. Ikasle horiek beren hezkuntza beharrei erantzuteko, laguntza pedagogiko berezia beharko dute.

Ikasleen aniztasunaren trataera lantzeko, zenbait bide aipatuko ditugu eta, ondoren, *Geografia eta Historia* arloari aplikatuko dizkiogu. Ikasle bakoitzaren errealitatera egokitzen saiatuko gara bide horien bidez.

7.1. CURRICULUMA

Curriculum bera da aniztasunaren trataerarako lehen tresna. DBHko eta *Geografia eta Historia* arloko curriculum irekia eta malgua da; zehaztapen maila ugari

ditu, eta horrek aukera ematen du curriculumak ikastetxe bakoitzeko ikasleengana hurbiltzeko. Hezkuntza administrazioak derrigorrez bete beharreko zehaztapen maila bat ezartzen du; bertan, etapa eta gai bakoitzeko helburu orokorrak, eduki multzo nagusiak eta ebaluazio irizpideak zehazten dira. Helburu, eduki eta ebaluazio irizpide horiek ikastetxeko eta haren inguruko ezaugarrietara egokitzen dira etapako proiektu kurrrikularrean. Gainera, irakasleek curriculumeko elementu horiek taldeko/gelako beharretara egokitzen dituzte gelako programazioen bidez.

7.2. ZENBAIT METODOLOGIA

Ez dago «metodo» nagusirik. Metodo bat ez da bestea baino hobea edo txarragoa termino absolutuei dagokienez, baizik eta metodo horiek ematen duten laguntza ikasleek une bakoitzean dituzten beharrei erantzuten dieten balioetsi behar da. Beraz, eta curriculumak ezarritako hipotesi psikopedagogikoetatik ateratako printzipio orokorretatik abiatuz, irakasleek metodologia ugari erabil ditzakete ikasleen beharrei erantzuteko, eta, horrela, gelako aniztasunari erantzuteko *Geografia eta Historia* lantzerakoan, hain zuzen.

Irakasleek dute gelan egindako ariketen ardura. Irakaslearen egitekoa erraztu nahian, proiektuan, Geografia eta Historia arloko unitate didaktikoetan, ariketa multzo bat diseinatu eta sartu dugu. Honako ezaugarri hauek dituzten ariketak diseinatzeko saiatu gara:

- Adierazgarriak: ikasleak Geografia eta Historia arloan alde aurretik dituen ezaguerak kontuan hartuz, eduki berriak jada ezagutzen dituenekin lotzen lagunduko duten ariketak.
- Funtzionalak: eduki historikoak ikaslearen eguneroko bizitzan aplikatzen laguntzen dute, eta gauza berrien ikasketa errazteko elementuak ematen dituzte.
- Distantzia ezin hobea: hau da, ez daitezela errazegiak ez zailegiak izan, ez dezatela motibazioa galarazi eta ez daitezela ikasleek *Geografia eta Historia*

arloari buruz duten ezagutza eskemen baitan sartu.

- Ikasleen arteko eta ikasleen eta irakasleen arteko elkarreragina errazten dutenak: taldeko dinamikaren teknikan oinarritutako fenomeno geografikoekin zerikusia duten ariketak diseinatu dira. Ariketa horiek ikuspegi trukea, besteen ideiekiko errespetua eta zereginen banaketa bultzatzen dute; azken batean, ikaslea jarrera kritikoa eta parte hartzailearekin gizarteratzeko prestatzen dute.
- Ebaluagarriak: egindakoa hausnartzeko eta *Geografia eta Historia* arloan egindako aurrerakuntzak aztertze aukera ematen dute. Ikasleak ikasketa prozesuan egindako aurrerapenaren berri izango du, zein akats egin dituen jakingo du, eta horiek zuzentzeko aukera ere izango du.
- Mota askotakoak eta bereziak. Gelako ikasleen behar ugari erantzuteko balio duten ariketak. Proiektu honetan, Geografia eta Historia arloari aplikatutako hiru ariketa mota aipa ditzakegu, hala nola:
 - Ikasle gehienek egin ditzaketanak.
 - Batez ere zailtasunak dituzten ikasleei zuzendutako ariketa errazak.
 - Ikasleei beren ezaguera geografikoetan, historikoetan eta artistikoetan sakontzeko aukera ematen dieten ariketak.

Gainera, irakaslearen liburuan, edukiak zabaltzeko materiala eta zabaltze edo sakontze ariketa berriak jartzeko bestelako baliabideak ere jasotzen dira; bereziki, egokiak izango dira material aurreratuago doazen edo material interes berezia duten ikasleentzat.

7.3. TALDE MALGUAK

Taldeak/gelak lan talde malguetan antolatzeak aukera ematen die ikasleei, mailaren, interesen eta beste zenbait irizpideren arabera, aldi berean zeregin bat baino gehiago egiteko. Eduki historiko berdinak sakontasun maila desberdinekin landu daitezke, sendotze, laguntza, sakontze eta zabaltze ariketen bidez.

7.4. CURRICULUM EGOKITZAPENAK

Irakaskuntzaren indibidualizazio eta pertsonalizazio printzipioaren adierazpen nagusia Geografia eta Historiako materiari egindako curriculum egokitzapenak dira. Egokitzapen horien helburua hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei heziketa egokia ematea da. Bi talde nagusitan sailka ditzakegu curriculum egokitzapenak:

- Curriculumaren sarrera egokitzapenak.

- Curriculumeko oinarrizko elementuen egokitzapenak. Geografia eta Historia gaiaren helburuak, edukia, metodologia eta ebaluazioa ikasleen ezaugarri zehatzetara egokitzen dituzte.

Etapak hau derrigorrezkoa izateak ezinbesteko bihurtzen du egokitzapen kurrikularren neurria heziketa behar bereziak —entzumenezko, ikusizko eta buruko zailtasun arin iraunkorrek nahiz arazo motorrek eragindakoak— dituzten ikasleentzat.



8. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

8.1. ARLOKO EBALUAZIO IRIZPIDE KOMUNAK

1. Era askotakoak baina sinpleak diren iturrietatik gai historikoei buruzko informazio garrantzitsuak eskuratzea eta erabiltzea, eta pixkana haiek zailtzen joatea, nahiz eta betiere jarraibide gidatuak izan. Informazioak erlazionatzea, balioestea eta konbinatzea, gertakari sozialak azaltzeko orduan.
2. Autonomia eskuratzea oharrak hartzeko, idatzizko iturrien kontsulta egiteko eta datu base errazetara sartzeko, informazioaren teknologien aukerak baliatuz.
3. Gai historikoei eta geografikoei buruzko laburpenak egitea, egindako lana eta erabilitako informazioaren lana islatuko dutenak. Banaka edo taldean, arloaren gaiari buruzko lanak eta ahozko azalpenak egitea, egoki den hiztegia eta zuzenketa formala erabiliz.
4. Mundu garaikidearen bilakaera historikoin oinarritzko eta era askotako alderdiak bereiztea eta balioestea.

8.2. HISTORIAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETAPA OSORAKO

1. Testuak, irudiak, mapak eta grafikoak interpretatzea eta aztertzea, modu zehatzean, dagozkion tresna historiografikoak erabiliz eta bere edukia ikasitako gai historikoekin lotuz, eta informazioa zabalduz, beharrezkoa balitz, beste iturri batzuekin.
2. Gaitasun kritikoa eta iritziak emateko gaitasuna garatzea gai historikoen azterketan eta analisisian, alderdi soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala lotuz.
3. Aztertutako gertakizun historikoen artean jarraitutasun ildoak aurkitzea eta ezartzea. Fenomeno historikoen etengabeko harremanaz jabetzea.

8.3. HISTORIA IKASGAIKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Historia garaikidearen gertakizunak, gertaerak eta arazo garrantzitsuak aztertzea

- eta azaltzea, denboran eta espazioan zuzen kokatuz, gaur egungo munduan duten eragina eta oihartzuna balioetsiz.
2. XIX. eta XX. mendeetan gertatutako aldaketa nagusiak identifikatzea eta bere arloak bereiztea, munduko hainbat gunetan izan duten eragin maila desberdina seinalatuz.
3. XIX. eta XX. mendeetan gertatutako aldaketa prozesuetan gaur egungo garapen ekonomikoaren, egitura soziopolitikoaren, Ipar-Hegoa desoreken eta gizadiaren arazo handietako batzuk antzematea.
4. Sistema demokratikoen antolamendua eta erakundeak inspiratzen dituzten printzipioak identifikatzea eta azaltzea, baita haren mailakako garapenean eragina izan duten alderdiak ere, eta posible egin dutenak, inguruabar jakin batzuetan, erregimen horien haustura.
5. Zeregin historiografikoari berezkoak zaizkion lan, ikerketa eta komunikazio teknikak erabiltzea, bai banakako lanetan nahiz talde lanetan, burujabetasunaz, irizpide propioz eta espiritu kritikoz, estereotipoak eta aurreiritziak gainditzeko asmoz.
6. Iraganari buruzko hainbat iturriren informazioa eskuratzea eta aztertzea, bere garrantzia baloratzeko, eta erlazioak ezartzea eskuratutako ezagupenei esker, terminologia historikoa behar bezala erabiliz eta errealitate historiko batek berak izan dezakeen pertzepzioen eta interpretazioen aniztasuna antzemanez.
7. Gertakari historikoren edo gaur egungo auzi bati buruzko txostenak idaztea, hainbat iturrietatik lortutako informaziotik abiatuz, hedabideak barne, eta informazioaren teknologiak erabiliz, kontuan hartuz aurrekari historikoak, erlazioak aztertuz eta dagokion testuinguruan haien garrantzia epaituz.
8. XIX. eta XX. mendeetan gertakari historikoren baten edo prozesu iraultzailearen baten kausak identifikatzea, erlazioak aztertuz eta horietako batzuen garrantzi erlatiboa balioetsiz, gaur egungo ikuspegitik nahiz ikuspegi historiografikoetatik.